
INFORMAZIO-OHARRA

I. eranskinean agertzen direnek (**destinoa lortzeko aukera duten izangaiek**) –euren kategorietan izangaiei behin-behineko zerrenda argitaratuko da 2022ko urrian– hauxe egin behar dute **15 egun baliiodunen epean**, izangaiei zerrenda dakarren ebazpena webgunean argitaratu den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, bat etorri oinarri orokorren 14. oinarrian zehaztutakoarekin:

1. **Destinoa** webgunean aukeratu. Hona hemen destinoen aukeraketa elektronikoa webgunean egiteko [Jarraibideak](#).

2. **Betekizunak eta merezimenduak egiaztatzeko dokumentuak baliozkotu/entregatu.** Webgunean [Dokumentazioa entregatzeko eredu-orria](#) jarri dugu interesdunen eskura; esandako epean entregatu beharrekoa.

Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan dokumentazioa entregatzeko, **derrigorrezkoa da aurretik hitzordua eskatzea**:

- Destinoa lortzeko aukera duen eta lanean ari den izangai bakoitzari, bere zerbitzu-erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzak emango dio dokumentazioa entregatzeko hitzordua esandako epean.
- Destinoa lortzeko aukera duten baina unean lanean ari ez diren izangaiei, Osakidetzako Hautaketa eta Horniketa Zerbitzuak emango die dokumentazioa entregatzeko hitzordua esandako epean.
- Hala jarduteko, 2016-17ko EPEaren webgunean Osakidetzako zerbitzu-erakundearen zerrenda eta harremanetarako posta elektronikoak argitaratu dira.

Dokumentazio-entregatze hori, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan esandako eran egiteko aukera ere izango dute interesdunek.

Nolanahi ere, derrigortasun-data igarota duten lanpostuak lortzeko euskararen hizkuntza-eskakizunaren fotokopia konpultsatua bidali beharko da, baldin eta eskakizun hori Osakidetzan ez badago (Oinarri orokorren 14.2. oinarria), eta horrez gain, baita dagokion homologazio- edo baliozkotze-prozesuaren ondoren deialdiak eskatzen duen titulazioa ere (6.2.c oinarria).

Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuaren **hitzordua lanean hasteko azterketa medikorako**.

Osakidetzako **zerbitzu-erakundeetako Prebentzioko Oinarrizko Unitateek emango diete** destinoa lortzeko aukera duten izangaiei **lanean hasteko azterketa medikoa egiteko hitzordua**, dagokion ebazpena argitaratzen den egunetik 2022ko urrira arteko epean; beraz, izangaiek ez dute azterketa mediko horretarako hitzordurik eskatu beharko.

Nahi dutenek **erreklamazioa aurkeztu ahaliko dute izangaiei behin-behineko zerrendaren aurka** 15 egun baliiodunetan, izangaiei behin-behineko zerrenda dakarren ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Hona hemen horretarako erabil daitekeen [Erreklamazioa aurkezteko eredu-orria](#).